

## **APARTEKO OSOKO BILKURA**

**2014.04.10**

Tolosako Udaletxean, 2014ko apirilaren 10ean, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ezohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaia aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 10 de abril de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre el punto del orden del día que se relaciona:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria  
Asier De los Rios Soraluze  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Mikel Arreseigor Astibia  
Rosa Maria Urkola Irigoyen  
Jon Koldobika Arsuaga Artola

Jon Aldazabal Etxeberria  
Jokin Azkue Arrastoa  
Olatz Peon Ormazabal  
Nerea Letamendia Belloso  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

### **Eguneko gai zerrenda:**

**“Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu” mozioaren onarpena.**

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio adieraziz aurkeztutako bi mozioak katearaztea eta ez bata eta bestearen kontrako bezala tratatzea.

## APARTEKO OSOKO BILKURA

2014.04.10

### **“Euskal Herritarrek gara eta ozenki adierazi nahi dugu” mozioaren onarpena.**

Idazkariak mozioa irakurri du. Honek honela dio:

“Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratortzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok, gure borondatearen gainetik ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herrian 1998. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

## APARTEKO OSOKO BILKURA

2014.04.10

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra...Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo "gure esku dago" bezala, Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak, edo itxaropentsuak izatera bultzatzen gaituen Independentziari buruzko Etxarriko herri kontsultak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, **Tolosako herriko udalak** Aberri Egunerako ez ohiko osoko bilkura honetan, hurrengoak adierazi nahi du:

1.- Euskal Herritarrak garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan Euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta –batez ere- etorkizunari erreparatu nahi dugunez gero, kultur, hizkuntza eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu librean oinarriturik, Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.

4.- Independentziari buruz, Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesak adierazi nahi diogu. Erabakitze eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinenagatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia eta, oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babesak adierazi nahi diogu."

## APARTEKO OSOKO BILKURA

2014.04.10

Jarraian, EAJ/PNV alderdiak aurkeztutako mozio alternatiboa irakurri du Idazkariak. Honek honela dio:

“Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratortzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen gaineratik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua, autonomia estatutua berreskuratzeko eskaria egiten zuena. Erkidego Autonomoan 1979ko urriaren 25an herritarrek onetsi zuten, azkenean, Gernikako Estatutua, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoen gaurkotzeari aurrerantzean ere atea zabaltzen dizkion testua. Aipagarria dira ere Ipar Euskal Herriaren 1998. urtea geroztik Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen. Zeinek Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulertzen zuen, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartzea askean oinarritu behar zela zioen.

Horretarako behar beharrezkoa da gure Herrirako erabateko bakea eta bizikidetzaren demokratikoa bermatzea. Bake iraunkorra, elkarrizketaren, justiziaren, egiaren eta gure Herriaren interes orokorrari bideratuz landua.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo “gure esku dago” bezala, Euskal Herriaren sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, TOLOSAGO herriko udalak Aberri Egunerako ezohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

## APARTEKO OSOKO BILKURA

2014.04.10

1. Euskal Herritarrak garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.
2. Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan ikurriña (Euskal ikurrak) jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna gure ikurriñaren (ikurren) bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.
3. Gure herrirako benetako bake eta bizikidetza demokratikoa , elkarrizketaren, justiziaren, egiaren eta gure herriaren interes orokorraren bitartez landua izango dena, lortzea helburu duen Eusko Legebiltzarrean abian den Bake eta Bizikidetza lantaldeari gure babesa eskaintzen diogu, eta, era berean, baita beste gainontzeko Lurraldeetan sor daitezkeen antzeko ekimenei ere.
4. Egungo gizartean elkarri zor diogun begirunetik, eta guztion ondare diren eskubide demokratikoetatik abiatuz, gure asmoa herritar askez osatutako aberri aske bat lortzea dela aitortuz, justizia soziala eta guztion aurrerabidea bermatuko duena, zer garen ulertzeko oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Herri bakar bat osatzera garamatzaten ezaugarri eta kultur ondare amankomuna aitortuz eta zainduz, horrekin batera herritar guztien ezaugarri eta eskubideak zainduko dituen gizarte aurreratu bat lantzeko etengabeko asmoa adieraziz.
5. Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi diogu. Euskal Herriari dagokion erabakitzeko eskubide demokratikoaren ariketa sinboliko jotzen dugun neurrian bere zilegitasuna aitortzen diogulako.
6. Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, “*Gure esku dago*” herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia eta, oro har, “*Gure esku dago*” herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu.”

Jarraian, lehenengo mozioa bozketara jarri da eta gehiengoz, Bildu (8), EAJ/PNV (7) eta Aralar (1) alderdien aldeko botoekin eta PSOE alderdiaren zinegotziaren (1) kontrako botoarekin onartu da.

Segidan, bigarren mozioa bozketara jarri da eta gehiengoz, Bildu (8), EAJ/PNV (7) eta Aralar (1) alderdien aldeko botoekin eta PSOE alderdiaren zinegotziaren (1) kontrako botoarekin onartu da.

Parte hartzeak:

- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: “Abertzaletasuna bidaiatuz sendatzen dela esaten duten horiek ez dute asko bidaiatu, zer bidaiatu izango balute konturatuko lirateke munduko herri guztietan, baita demokrazia aurreratuenetan ere, nor bere nazioari goratar egitea jarduera demokratiko arrunta eta inportantea dela. Testu inguru horretan kokatzen da Aberri Eguna. Mozio honetan tokiko eskubideetaz hitz egiten da. Europan arazo handi horien artean nazio eskubidearena izan da eta hori aldarrikatzen ibili naiz. Gai hau pil-pilean dago Europako agenda politikoan, bereziki Eskozia eta Kataluniako kasuak direla eta. Espero dezagun, etorkizun ahalik eta laburrenean, Euskal Herrira etor daitezela baldintza sozial egokiak bide

## APARTEKO OSOKO BILKURA

2014.04.10

honetan Euskal Herria ere abiatzeko. Datorren igandean Etxarrin egingo den kontsultak balio sinboliko hutsa duela badakigu, baina garbi dago Arenys de Munt-en orain dela sei edo zazpi urte egin zen hurak balio sinboliko hutsa izan zuela, baina beste mugimendu bat abiatzeko gaitasuna izan zuela. Momentu honetan beste lehentasun handiago batzuk dauzkagu hemen konpontzeko subiranotasun bidean tinko eta irmo hasteko. Baina garbi dago Etxarri-Aranatzen egindako ekitaldiak, balio sinbolikoetatik haratago, gure herriak trinkotzeko balioko dutela. Beraz, bi mozioak babestuko ditut, gauza bera esaten dutelako modu desberdinetan, bakoitzak bere matizarekin.”

- ... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: “Hasteko esan zer nolako bilkurak izaten ditugun udal honetan gai honekin Aparteko Osoko Bilkura egiten dugunean: ez zait zilegia iruditzen. Mozioei buruz, nire bozketa kontrakoa izango da, abertzaleei zuzendutako mozioak direlako. Ikuspegi bakarra dute, ez dute aniztasunik eta Euskal Herria herri anitza da eta ez dute desberdinen artean akordiorik bilatzen eta iraganaz hitz egiten da. EAJren mozioak bake eta bizikidetzat taldea aipatzen du, besteak ez du aipatzen. Euskal Legebiltzarrean autogobernuko lan talde bat osatu da. Guk ponentzi bat daukagu eta utzi diezaiogun ponentzia horri lan egiten! Ponentziaren titulua “Ponencia sobre la actualización del Autogobierno como expresión de la voluntad política de todo lo vasco” da eta utzi diezaiogun lan egiten eta ikusiko da zer ateratzen den hortik. Espero dut akordio zabalaz izatea.”
  
- ... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ/PNV): “PSEE-PSOEren bozeramaleari erantzunez, esan, hemen islatzen dena da abertzaleok dugun iritzia edo sentimendua. Honek ez du inor baztertzen. Jende asko dago beste pentsamolde bat duena eta hemen eskatzen dena da horiek aitortzeko. Ez da esaten denek bat egin behar dutenik honekin, baizik eta sentimendu bat eta iritzi bat dagoela eta, horren baitan, kolektibo bat hori aldarrikatzen duena. Bigarrenik, hau gehien bat alkatetzara begira, bi mozio aurkeztu dira zentzu berekoak direnak. Zuek aurkeztutakoarekin zenbait puntuetan deseroso sentitzen gara: hori horrela da, baina zuek gurea babestuko duzuela esan duzue eta guk zuena babestuko dugu. Baina ahalegina egin beharko genuke, beste zenbaitetan egin den bezala, mozioak adosteko.”
  
- ... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “Ados nago, mozio bateratua aurkezteko gai izan behar genuke. Ni biekin eroso sentitzen naiz eta ez daukat inongo eragozpenik biak onartzeko, baina gutxieneko batzuetara heldu behar genuke. Hemen planteatzen dena ez da abertzaleon ikuspegi aldetik soilik, baizik eta ikuspegi demokratikoak dira eta demokratik oro har babestu beharko luke herriak hitz egitea. Hemen nortasun politiko bat dago, mendeetan eta mendeetan gauzatzen saiatu izan dena eta Aberri Egunetan azalarazten dena. Euskaldunak gara, ez gehiago ez gutxiago, irekiak jatorri guztiei, baina gurea ere errespetatzea eskatzen dugu. Esklusiboak garelako esaten dute sarri edo eskluienteak garelako eta, hemen, eskluientea inor baldin bada, Estatuetako jarrera abertzaleak dira. Horiek ere abertzale Espainolak dira eta abertzale Frantsesak dira legitimitate osoa dutenak. Baina guk ere aitortza bat eskatzen dugu: garena izaten uztea eskatzen dugu. Gure buruaren jabe izan nahi dugu, baina ikuspegi demokratiko batetik. Etxarrin burutuko dena sinbolismoz beteriko ekitaldi bat da, baina horixe besterik ez da. Eraikiko duguna guztion artean eraiki beharko dugu, baina gu Euskaldunak gara inori beste ezer kendu gabe. Euskaldunak gara, Euskaldunak izaten jarraituko dugu eta, momentu honetan, Espainiar Estatutik jasotzen dugun guztia ukazioa da, errepresioa da, iluntasuna da. Ez da batere postura inteligentea politikoki Estatu Espainiarrak jolasten ari den papera, ez gurekin, ezta Kataluniarekin ere. Gu bagoaz, eta geroz eta argumentu gehiago eta

**APARTEKO OSOKO BILKURA**

**2014.04.10**

objektibo gehiago dauzkagu deseroso sentitzeko Espainiar Estatuarekin. Guk gurea dena aldarrikatzen jarraituko dugu. Desberdinen arteko nazioa eraikitzea daukagu erronkatzat eta horixe da gure bidea: beraz, guk ere biei emango diegu gure babeseta eta baita igandeko Etxarriko herri galdeketari ere.”

Besterik gabe, arratsaldeko zortzi t´erdietan Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho y bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, media de la tarde, se da por finalizada la sesión, de Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut. todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA